Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6072

AGINDUA, 2009ko azaroaren 4koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Ikerkuntzako 2009ko Euskadi Sarirako deia egiten duena, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz.

Urriaren 17ko 208/2006 Dekretuak Ikerkuntzako Euskadi Saria arautzen du, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz.

Aipatutako dekretuak 1.3 artikuluan zehazten du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren agindu baten bitartez urtero Ikerkuntzako Euskadi Sarirako deia egingo dela. Agindu horrek honako hauek jasoko ditu: deialdiaren xedea, sarirako ezarritako zenbatekoaren eguneratzea eta hautagaiak aurkezteko epea –inolaz ere ez hilabete baino gutxiago–.

Kontuan hartu da zer dioen Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Nagusien kargutan egiteko den gastu espedientearen aurreratutako tramitazioa arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduak.

Horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da urriaren 17ko 208/2006 Dekretuan arauturiko Ikerkuntzako Euskadi Sariaren 2009ko ediziorako deia egitea, Gizarte Zientziak eta Humanitateak modalitatean.

2. artikulua.– Sarien diru-kopurua.

Agindu honetan adierazitakoaren arabera emango den sari gordina 36.000 eurokoa izango da. Gainera, sarituak estatuatxo bat eta bereizgarri bat jasoko ditu, saria emateko ekitaldi publikoan.

3. artikulua.– Hautagaiak aurkezteko epea.

Hautagaiak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen de egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Deialdiaren eta deialdia arautzen duen dekretuaren testuak lortzeko Interneteko helbidea hau da «http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net».

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6072

ORDEN de 4 de noviembre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca el Premio Euskadi de Investigación 2009, con el fin de fomentar la actividad científica.

El Decreto 208/2006, de 17 de octubre, regula el Premio Euskadi de Investigación, con el fin de fomentar la actividad científica.

Dicho decreto, en su artículo 1.3 señala que el Premio Euskadi de Investigación será convocado anualmente por orden del Consejero de Educación, Universidades e Investigación. En dicha orden constará en todo caso el objeto de la misma, la actualización de la cuantía económica destinada al premio y el plazo de presentación de las candidaturas, que en ningún caso será inferior a un mes.

En base a lo establecido en la Orden de 26 de abril de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Orden convocar en su edición 2009, el «Premio Euskadi de Investigación», regulado por el Decreto 208/2006, de 17 de octubre, en su modalidad de Ciencias Sociales y Humanidades.

Artículo 2.– Dotación.

El premio y cuantía bruta que se concederá será de 36.000 euros. La persona galardonada recibirá además una estatuilla e insignia durante el acto público de entrega del Premio.

Artículo 3.– Plazo de presentación de candidaturas.

El plazo de presentación de candidaturas será de un mes a partir del día siguiente de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

La dirección Internet para obtener los textos de la convocatoria y del decreto regulador de la misma es: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net.

4. artikulua.– Datuak babestea.

1.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, inprimakian jasotako datu pertsonalak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko datu pertsonalen fitxategi automatizatuan jasoko dira.

2.– Eskabidea sinatu duten pertsona fisikoak ez diren hirugarren pertsonen datu pertsonalak fitxategi automatizatu horretan bertan jasoko dira eta, beraz, haiek halaxe jakinarazi behar diete datuak eskaerainprimakian adierazi aurretik.

3.– Datuak aurkaratu, kontsultatu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak eta indarrean dagoen legeriak pertsona fisiko interesdunei aitortzen dizkien gainerakoak Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzan erabili ahal izango dira (Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Nagusien kargutan egiteko den gastu espedientearen aurreratutako tramitazioa arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren ondorioetarako, Agindu honetako laguntzak ebazteko ordainketa-kreditu eta konpromiso-kreditu egokiak eta nahikoak egon behar dira, behin betiko ebazpen garaian, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzierrekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean. Kasu bietan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Agindu honetan adierazi ez den guztian, urriaren 17ko 208/2006 Dekretuan xedatutakoak aginduko du.

Artículo 4.– Protección de datos.

1.– De conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de datos, los datos de carácter personal que figuran en el formulario pasarán a formar parte del fichero automatizado de datos de carácter personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

2.– Los datos personales de terceras personas distintas de las personas físicas que firman la solicitud pasarán a formar parte del mismo fichero automatizado, por lo que éstas deberán informar a aquellas de tal circunstancia antes de incorporar sus datos al formulario de solicitud.

3.– Los derechos de oposición, acceso, rectificación, cancelación y cualesquiera otros reconocidos por la legislación vigente a las personas físicas interesadas se podrán ejercitar ante la Viceconsejería de Universidades e Investigación, sita en la calle Donostia-San Sebastián, 1, CP: 01010 Vitoria-Gasteiz.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

A los efectos contemplados en la Orden de 26 de abril de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la efectividad de la presente Orden queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el momento resolutorio definitivo.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación en el plazo de un mes, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– En todo lo no previsto en la presente Orden, se estará a lo dispuesto en el Decreto 208/2006, de 17 de octubre.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 4a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Tercera.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de noviembre de 2009.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.